

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## ZANBRANAKO UDALA

## Behin betiko onestea 2023ko aurrekontu orokorra

Ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu 2023ko aurrekontu orokorrari hasierako onespena emateko erabakien aurka. Beraz, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aurrekontu hori behin betiko onesten da.

DIRU SARRERAK	ZENBATEKOA
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
ZUZENKO ZERGAK	253.189,03 €
ZEHARKAKO ZERGAK	60.000,00 €
TASAK ETA BESTELAKO DIRU SARRERAK	55.610,00 €
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	201.037,94 €
ONDARE BIDEZKO DIRU SARRERAK	3.000,00 €
B) KAPITAL ERAGIKETAK	
Inbertsio errealak besterentzea eta beste diru sarrera batzuk. Hirigintza-jarduerak	55.000,00 €
Kapital transferentziak	355.223,98 €
FINANTZA-AKTIBOAK	
FINANTZA-PASIBOAK	
<b>SARREREN AURREKONTUA, GUZTIRA</b>	<b>983.060,95 €</b>

GASTUAK	ZENBATEKOA
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
Langile gastuak	121.727,24 €
Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	207.870,79 €
Finantza gastuak	9.534,85 €
Transferentzia arruntak	66.622,66 €
KREDITU OROKORRA ETA AURREIKUSI GABEKO BESTE BATZUK	5.000,00 €
B) KAPITAL ERAGIKETAK	
Inbertsio errealak	538.102,71 €
Finantza-pasiboak	34.202,70 €
<b>GASTUEN AURREKONTUA, GUZTIRA</b>	<b>983.060,95 €</b>

Aldi berean, eta bat etorritz apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 16. artikuluan xedatutakoarekin, osorik argitaratzen da udal honek onetsitako lanpostu zerrenda.

## I. eranskina - Lanpostuen zerrenda

### 1. Funtzionarioak.

#### 1.1 Estaturako gaikuntzakoak.

Idazkaritza-kontuhartzaitzako plaza bat, estaturako gaikuntzako A1 taldekoa, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 76. artikulua arabera. Titulazioa: Estatu osorako gaikuntza duten toki administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz; hizkuntza eskakizuna: 4; derrigortasun data: 2020ko otsailaren 6a. Lantokia: udaletxea; administrazio egoera: jardunean; arduraldia: osoa; destino-osagarriaren maila: 26; betetzeko era: lehiaketa; berariazko osagarria: 23.674,70 euro.

#### 1.2 Administrazio orokorrekoak.

Administrari laguntzaile plaza bat, C2 taldekoa, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 76. artikulua arabera, administrazio orokorreko eskalako, administrari laguntzaileen azpieskalako. Titulazioa: eskola gradua, 1. mailako lanbide heziketa edo baliokidea; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2005eko urtarrila; lantokia: udaletxea; administrazio egoera: beteta; arduraldia: osoa; destino-osagarriaren maila: 18; betetzeko era: oposizio-lehiaketa, 13.862,41 euroko berariazko osagarriarekin eta gehienez 2.863,00 euroko osagarri funtzionalarekin, lanpostuari ez dagozkion eginkizunak betetzeagatik.

### 2. Udaltzako kideen ordainsariak eta diru esleipenak.

Bat etorritz Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 75.5 artikuluan xedatutakoarekin, honako hauek dira udaltzak onetsitako aurrekontuari buruzko udal araudian jasotzen diren kalte ordainak eta bileretara joateagatik zenbatekoak:

a) Kargua arduraldi partzialez edo eskusiboz betetzen duten udaltzako kideen ordainsariak hurrengo ataletan adierazten direnak izango dira, eta aurrekontu esleipena egin ondoren baino ez dira aplikatuko. Kasu horretan, udaltzako kideei Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emango zaie, eta korporazioak bere gain hartuko du dagokion enpresa kuoten ordainketa.

b) Alkateak arduraldi partzialeko araubidean ematen ditu zerbitzuak, 2017ko apirilaren 10eko ALHAOn (42. zenbakia) argitaratutakoaren arabera. Urteko ordainsari gordina 29.921,71 euro gordinetara da, hamalau ordainsaritan banatuta (hamabi arrunt eta aparteko bi, ekainean eta abenduan), eta ezin du jaso bertaratzeagatik kalte-ordainik.

Osoko bilkura, bilera eta batzordeetara joateagatik, zinegotziek (alkateak izan ezik) 60 euroko dieta kobratuko dute konpentsazio bezala, parte hartzen duten bilkura bakoitzera joateagatik.

Estatuaren aurrekontu orokorren legeek enplegatutako publikoentzat ezartzen dutenaren arabera gehituko dira ordainsariak, baldin eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. bis artikuluan ezarritako mugak gainditzen ez badira.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuaren otsailaren 9ko 2/2004 Foru Arauaren 18. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, aurrekontuaren behin betiko onespeneraren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean EAeko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Zanbrana, 2023ko otsailaren 21a

*Alkate-lehendakaria*

**AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI**